

Gure Ametsari adio?...

GEKAN LANTZIRI



«INDEPENDENTZIA eta Estatuak, iraganeko terminoak dira». Horra hor. Xabier Arzalluz-ek.

PNV-eko buruzagiak, ahoan bilorik gabe, botatzen digun Hordago borobila.

Abertzaletz geroztik, neure gogo-bihotzek daukaten euskal subartasuna eta iraupena, Euskal Herri Euskaldun eta Batuaren baitan oinarriturik daukate. Eta bibost! Horra non, Sabino Arana Goiriaren ordezkari gorenak nere amets ederra funtsik gabe utzi nahi duen! Halako gizon argiak eta boteredunak hori baldin badio, amen! erran beharko ote?

Zergatik bada, 1936an, orduko PNV-ek gerla egin ote zuen espainiol frankisten aurka? Zergatik bada izan ziren hainbeste suntsiketa, hil, zauritu eta deserriratu? «Pour des prunes» ote, frantsesek dioten bezala. Euskadi ta Askatasunaren borroka armatua ongi ikusia zen, PNV-ek Estatuotiko botere-aulkiaz eskuratu arte. Zergatik ez geroztik hona? IK-rena bera ulergarria omen da Ipar Buru Batzararentzat!

Estonia, Lituania, Letonia eta beste hainbat Herrirentzat, arraz gaurkoak gertatu dira delako «iraganeko termino» horiek. Zergatik ez dira hala gertatuko Euskal-Herriarentzat?

Ez, beste milaka eta milaka euskaldunekin batera, nere ametsarekin bitziza nahiago dut, uko egitea baino. Eta, «iraganeko termino» bilaka daitezela lehen-bai-lehen, espainiol eta frantses Estaduek Euskal-Herrian izanarazten dituzten hizkuntz, kultur, sozial eta politik zapalketak, langabezia, torturaketa, deserriratzate eta presondegia. Eta bisan da, erreiztentzia armatua!

Nire tamainara

NEREA AZURMENDI



IRAGARKI baten bidez Euskal Telebista nire tamainara egina dagoela jakin nuenetik, buelta franko

eman diot aurkipean honi. Pulgadatzen eskasa dudana telebistaxoa, tira, metro karratutan eskasagoa den etxearen tamainari egokitu da. Baina tamainakoa Euskal Telebista badu, erabat galdu da nire neurriaren zentzua. Ez dut ixiste merkerik egin nahi Jose Luis Morenoren ala Amo y Señor teleasialaren protagonisten tamainarekin, hauetzat gain bada eta nire gustotara egokitzen den saio dexente. Baina tamainari buruz ari gara. Niri tamaina egokia inguruarekin nolabaitko oreka gordetzen duena iruditzen zait. Gaintzako etxetxo bat ez litzaidake egokia irudituko Manhattanen, ez eta Empire Stateren antzeko bat Gaintzako plazan ere. Aurten sosik gabe geratuko diren talde, aldizkari, beka, sari eta sortzaileen artean altxatzen den Euskal Telebistaren tamaina beste edonon egokia izango litzateke, ez ordea baratza txiro honetan, eskasia garaietan abundantzia gustu txarrekoa ere izan daiteke eta.

Badut, halere, beste hipotesi bat. Agian, publizitate psikologikoaren bidetik, Euskal Telebistaren tamaina nire imaginazio eta errealtatearen zentzu gabeziari egokitu diote. Hala bada, zorionak. Bete betean asmatu dute.

●ARGIA

Sitsak gaisotutako enborra

Lehen auzia borondateari dago. Institutio politikoek euskararen erabilera bultzatu behar ote duten. Buesak ezetz, eta Arregi/Garmendia tandemak, behinekoan batera, baietz. Orain artean, bederen, teorikoegia izan da auzia. Garbi dagoen gauza bakarra, gobernuakideen arteko adostasuna urrun dagoela. Araban amore eman zuen EAJK, baina eztabaidak orohar zehatzago behar luke: zer egin du gaur arte Eusko Jaurlaritzak euskararen erabilera bultzatzeko? Hizkuntz Idazkaritza bera da ekimen horren hutsunez jabe.

JOSU LANDA


●EL PAIS

Irlak

Eredu gisa jarri nahi den heriotz zigor horrekin, berriro ere beste urrats bat eman da garai batean Hego Amerikaren askapenerako abiapuntu ilusiozkoa zenaren desprestigioan. Hirugarren Mundua esperantzarik gabe geratzen ari da, hain zuzen ere, aurrerakuntzaren eta berdintasunaren ideiarik onenak gobernu autokratikoen arbitraritate eta ankertasunarekin okertuak ikusi direlako (...)

Cubatarrek duintasunezko irla

HEMEROTEKA



GALLEGO & REY / DIARIO 16

izaten jakin izan dute urte askotan. Castro orain ankerkeria irla bihurtu da, pentsamendu aurrerakoiazen itsasoa. Askatasun mitoa izan zen bizardun hura, gaur egun botere itsua estutzen duen moztorra baino ez da.

JOAN BARRIL

●EL MUNDO

Europa ez da jauja

... dirudienaz onartezina da buruzagi nazionalista batzuen erantzukizunik eza, nahita egindako engainua ez bada, gure herriari azalzerakoan euskaldunen askatasun nazionala zorionez Europan gauzatuko dela, non dirudienaz hemen eta orain Espainiako Estatuatik lortzean uko egin behar diogun (...)

Guzti hori fraudea da, Espainiako

Estatuaren aurrean erreindikazio nekagarriak ez egiteko dela ulertuta. Estatuak ez dira desagertzen. Europako erakuntzaren protagonista bakarrak dira, eta bertara politikoki joaten direnean ere, egungo beraien kompetentzia batzuen gauzatzea. —egitura konfederala, eta askoz gutxiago federala— oraindik urrun geratzen da egungo panorama komunitariotik eta, beti ere, bere garaian gaur egungo estatuak bakarrik osatuko dute. Estatuarekin daukagun auzia konpontzen joaten ez bagara, Europa ez da izango burujabetza emango diguna eta Espainiako Estatuak egotzen digun izaera 'erregionala' berretsi baino ez du egingo. Estatuari geure herriak bere borondate autodeterminatzeko duen eskubidea erreindikatu eta lortzen ez badugu.

KARLOS GARAIKOETXEA



Elgarrekin

Joan den astean ikus zitezkeen, bai 'Sud Ouest' egunkarian, bai Enbata eta bai ere HERRIA gure astekarri maitean Henri Grenet eta Eli Galdos-en argazkiak, biak elgarretaririk Baionan.

Nork asmatuko zuen holakorik duela orai hamar urte? Grenet Gas-teiz-Ajuriaiecan, Ardentza Bordenle eta Baionan, Ali Nafarroako presidentea Pauen eta orai Eli Galdos Gipuzkoako diputatu nagusia Baionan.

Ez pentsa halere 'tout le monde il est beau, tout le monde il est gentil' lelo horrekin bilzen direla, moko luzeko antzarak baitira beren xixtua entzunarazten dutenak.

GEHEXAN PONTTO

ZUZENDARIARI

Txillardegiren alde ni ere

Txalogarri benetan Andolin Eguzkitzak herenegungo (92-1-23) EGUNKARIAN «Txillardegiren alde» izenburupean hain artikulua zehatza argitaratu emateko bidea egin duelako.

Oso gogotik irakurri dudala esan behar. Beharrik norbaitek modu egokian hitza ateratu duen eta garai edo momentu onean ateratu ere, ene ustetan.

Esango dut besterik ere, Txillardegiren baitan 'intelektual konprometatu' horietarik bat ikusten dugunok, eta berarengandik asko ikasi edo bildurik garenek, eresumindurik gelditu gindela Txillardegiri, birritan bederen, baztertzeko, burutu zen zuzenaren kontrako jokabidearekin.

Eta are, sumindura hau, nire kasuan, handiago bilakatu zen, 'haustekunde' bezperan euskaltzain oso batekin topatu eta berak aipatu gainera, Txillardegiri izango zela hurrengo euskaltzaina, «gaur egun daukagun hizkuntzalaririk onena» bera zenez.

Ez zen makala izan nire harridura biharumenean, Patxi Altuna izan zela euskaltzain hautatua jakin nuenean. Eta garbi gera bedi ez dudala ezertxo ere beronen kontra, aitzitik

baizik. Harriduraren gakoak hemen zetzan azken batean: boioen kontaduria egin ondano, delako euskaltzain horren botoa ere P. Altunaren alde joan zela azaltzean.

Zorionak, Andolin. Euskaltzainei, gero, eta... zintzo portatzen badira.

JAZINTO F. SETIEN
Hernani (Gipuzkoa)

Patrick de la Sotari

Bilboko nabigazio eta merkatalgo ganbarako lehendakari jauna: Bilboko egunkari bati zuz egindako adierazpenak irakurri dituen santurtziar bat nauzu, bertan eta beste zenbait adierazpenen artean Bilboko Superportuaren beharra aitortzen zenuen. Ez ninduen ez ustean harapatu, ez bat lehen aldian tankera honetako adierazpenak azaltzen dituzuna. Baina bai ikutu ninduen «ekologiko baina ez ekologista» zela zioenarenak.

Apika zure bizitza pribatuari izaki ekologikoa izanen zara. Litekana da garraio publikoak erabiltzea, baita erabiltzen duzun paper urria birziklatua izatea edota baterako

baino balio ez duten ontziak ez erabiltzea... Agian baliteke, zure bizitza pribatuari «ekologiko» izatea. Hala balitz, gure eskerrona eta begirunea adierazi nahiko nitzizuke.

Aitzitik agirikio bizitzan eta hain zuzen Abra eta honen inguruari dagokienean 'ekologiko' izaerarik arras urrun zaudela begibistakoa da, bestela nolatan izan liteke inguruari hainbesteko kaltea egungo dion ekintza baten bultzatzaile izatea eta ekonomiarik bagazkio ez buru eta ez hanka ez duen erakuntza baten sustatzaile.

Nolatan esan liteke batetik gaur egungo Portuaren gestioa ezaguna zaizula eta bestetik erakuntza eraldioi honen sustatzaile zarelara aitortu?

Abenduaren hasieran zehin Labe Garaiak geratzen baziren Superportuaren erakuntza baldintzapean jarri beharrekoa zela... Gaur egun, Labe Garaiekin etorkizunaren alde inor gutxi eman lezake bost sentimo baina Abra aste batzu barru betetzen hastekoak dira.

Ni, Ezker aldeko ekologisetako bat, lanen aurka altxaiko naiz. Eta berorrek, ekologiko Jaun horrek, zein asmo dauka?

CESAR BLANCO
Santurtzi (Bizkaia)

GAIA JARRITA



Bizkaiko Labe Garaiak

Antolin Jaunak itxi nahi digu Bizkaiko burni errota nahitza horrekin milaka sendik gelditu behar lur jota sindikatuek nahitza agindu greba gogor ta borroka edo Azua jaunak ordago erdipurdizkoa bota dorrigoaren Madril aldera joan behar ate joka era hortako erabakien giltza bertantxe dagota garbi ikusiz kompetentzirik ezak dakargun porrota.

ABEL ENBEITA

Administrazio Kontseiluko Lehendakaria: MARTIN UGALDE
Kontseilu Editorealeko Lehendakaria: JUAN MARI TORREALDAI
Kontseilari Ordezkarria: JOXE MIEL ZUMALABE
Gerentea: INMA GOMILA

Zuzendaria: PELLO ZUBIRIA
Zuzendariordeak: NERIA AZURMENDI, LUZIAN ETXEZAHARKETA, INAKI URUA
Publizitateak: KORNELIO ROTETA

Egunkaria

Lege Godaldea: SS 800/90

HELBIDEAK
Erredakzio eta Tailerra: ANTZA S.A. Industrialdea 01-02 Pabiloiak / 20.160 Lasarte-Oña / ☎ 37 15 45 / Faxa: 36 54 93
Egokitza soziala, Publizitate eta Administrazioa: Antso Jakituna, 16-1 / 20.010 Donostia / ☎ 46 90 22 / Faxa: 45 59 57
Arabak: San Antonio, 20-1. Lezker. / 01005 Gasteiz / Telef: 23 38 72 / Faxa: 23 38 73
Nafarroa: Iratxe Monastegia, 45-13. esk. / (Irrintzi dorrea) / 31011 Iruinea / Telef: 17 80 78/79 / Faxa: 17 80 77
Bizkaia: Barroeta Aldamar, 2-1. Lez. / 48002 Bilbo / Telef: 423 90 62 / Faxa: 423 94 60
Lapurdi: Nafarroa Beherea / Zuberoa: 2. Galupeta kaia. / 64100 Baiona / Telef: 59 59 35 75 / Faxa: 59 25 75 11